2014-I-24
Número **419.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.org

# astekaria

## EDITORIALA

### Eredu berriaz

**Berrikuntzaren bidetik omen doa patronala. Gipuzkoako Adegik berriki eman du ezagutzera lan harremanen esparrua nola ulertu behar den eta plazara ekarri du bere proposamena hemendik aurrera nola arituko den esplikatuz. Aurkezpenean, Adegiko arduradunez gain, Industriako sailburua den Arantza Tapia ageri zitzaigun, besteak beste. Lan harremanen eredu berria deiturikoa lan harremanak bezain zaharra da, hitz politez eta apaingarriz josia, benetako intentzioa estaltzen dutenak, hain zuzen ere.**

**Eredu berriak, propagandaz samurtu nahi bada ere, ohiko esangura eta jarduera dakar atzetik. Urte askotan dabil patronala lan harremanak langile bakoitzarekin banan-banan jorratzeko bidean. Halaxe egiten ari da kontratazio berriekin, lanpostua galtzeko mehatxua eta beldurra erabiliaz; baita lehenagoko kontratazioekin, baldintza berriak ezarririk langile bakoitzari eskura duen malgutasun itzela erabiliaz. Hitz berriak, ekintza zaharrak. Horrek ez gaitu harriduraz harrapatzen.**

**Are okerragoa eta larriagoa deritzogu sailburuak proposamena begi onez hartu eta datozen hilabeteotan plazaratuko duen industriarako plangintzan "berrikuntza ez teknologiko"-tzat txertatu nahi izatea proposamen hau. Ikaragarria. Funtsean bat dator patronalarekin lan harremanen ereduan. Hori horrela izanik, aitortu gabeko beste egia ezkutatzen du proposamenak: eredu hori egingarri gerta dadin oztopo izan daitekeen guztia ahuldu edo ezabatu behar da; sindikatuaz ari gara. Langile interesak defendatzeko talde-lana, babes eta indar kolektiboen bermea, langileak lerrokatu eta antolatu xede duen sindikatua desegin behar da, bera baita oztoporik handiena eredu berriarentzat.**

**Haatik, ezer behar ez duen patronalaren alde jartzea eskubide laboralak are eta gehiago zapaltzea da eta bidenabar erakusten du zer espero daitekeen agintе politikoaren eskutik. Ez da ezustekoa, dezepzioa baizik. Eskerrak ez ditugun gure itxaropenak otar horretan jarri. Langileon otarra askoz duinagoa da.**

**Lankidetu!**

## Soldatak eta enplegua defendatzea izan zen urtarrilaren 22an Azpeitian negoziazio kolektiboa indartzeko egindako jardunaldiaren helburua

# SOLDATAK = ENPLEGUA

Leporaino bete zen urtarrilaren 22an Azpeitiko Izarraitz pilotalekua, ELAk soldaten eta enpleguaren inguruan daraman kanpainaren baitan antolatu zen jardunaldiari babesa emateko. Urola-Kostako arduradun **Andoni Eizmendi** izan zen ekitaldiari hasiera emateaz arduratu zen laguna. Eizmendik negoziazio kolektiboaren inguruko jardunaldi hori Azpeitian egitearen zergatia azaldu zuen. "Gure eskualdeak enplegu-galera izugarria izan du azken urteetan, eta egungo errealitatea ulertzeko hainbat gako ematen dizkigu. Hor daude, besteak beste, Corrugados –bai Lasao eta bai Azpeitia–, Grumal, TS Fundiciones, Azkue edo Muebles XEYko adibideak. Aipatutako kasu hauek guztiak langile-antolakuntzaren garrantzia adierazten dute".

Batzorde eragileko kide **Leire Txakartegi**k eta Mikel Novalek hartu zuten txanda ondoren. Txakartegik ELAk, –XIII. Kongresu Konfederalak aho-batez erabakitakoari jarraituz–, martxan jarri duen langabetuen atalaren inguruan mintzatu zen. "ELAren langabetuen saila ez da izango beste sindikatu batzuena bezalakoa; guk ez ditugu zerbitzuak eskainiko, gure asmoa enplegu politika eraginkorrak lortzeko bidean jendea biltzea eta antolatzea da. Lan handia dugu zentzu honetan. Batetik gezurra da administrazio publikoentzat langabezia lehentasuna denik; bestela nekez ulertzen da hartzen dituzten neurri guztiak horren kaltetan izatea –murrizketak, prekarizazioa, enplegu-suntsiketa...– Bestalde, patronalari ederki datorkio langabezia. Langabetu horiek esku-lan merke gisan ikusten dituzte; zenbat eta langabetu gehiago esku-lan merkeagoa, gainera".

**Mikel Noval**ek, bere aldetik, soldatak defendatzearen garrantzia azpimarratu zuen. "Gure soldatak ekonomia errealera doaz, ez espekulaziora. Gure soldatek aberastasuna sortzen dute, gizartearen onurarako den aberastasuna. Soldaten jaitsierak eta prekarietateak lotura zuzena dute langabeziaren hazkundearekin, eta horren kontra gogor borrokatuko gara".

Negoziazio kolektiboko arduradun **Joseba Villarreal**ek ekitaldiaren lelo nagusiaren ildotik egin zuen bere hitzaldia. "Soldaten alde egitea da enplegua bermatzeko modurik onena. Arazoa soldatak balira agerikoa da Finlandia, Suedia edo Danimarka izango liratekeela krisiak gogorren kolpatutako herrialdeak. Errealitatea, berriz, oso bestelakoa da: soldata baxuenak dauden tokietan dago langabetu eta pobrezia gehien".

"Hori kontutan izanda, soldatak eta enpleguak izango dira gure lehentasunak negoziazio kolektiboari ekiteko orduan. Hitzarmenak sinatzea erraza da, oso erraza. Telefono dei bat, mahai batean hogei minutuz eseri, boligrafoa hartu eta listo, nahi adina gauza sinatzera. Zaila dena zera da, hitzarmen onak sinatzea, gure lan-baldintzak hobetuko eta duinduko dituzten hitzarmenak. Eta lan horretan ELAk duen guztia emango du, ahalik eta hitzarmen hoberenak sinatzeko tokiantokian estrategiarik eraginkorrenak bultzatuz".

Negoziazio kolektiboaren nondik-norakoak eta uneotan gure sindikatuak daramatzan hainbat borroka hobeto ulertzeko ELAko ordezkari **Araceli Lopez**, **Loli del Castillo** eta **Mikel Zabaleta** igo ziren taula gainera euren esperientziak azaltzera. Araceli Lopez eskola-garraioaren sektorearen inguruan mintzatu zen, Loli del Castillo Bizkaiko zahar-egoitzen inguruan eta, azkenik, Mikel Zabaletak azken hilabeteetan Oria-Goierri eskualdean izandako hainbat lan gatazka izan zituen hizpide.

Ondoren ELAko idazkari nagusi **Adolfo Muñoz**ek hartu zuen hitza; Muñozek egungo abagunearen irakurketa egin




zuen. (Oharra: bere parte-hartzea *Astekaria* honen bigarren eta hirugarren orrialdeetan dago irakurgai).

Izarraitz pilotalekuan izandako jardunaldiari amaiera emateko, Urnietako Deman enpresako langileak igo ziren oholtza gainera. Bildutako ordezkariek txalo zaparrada eskaini zieten borroka eredugarria eraman duten langile eta militante horiei. Demaneko ordezkariek *Eskerrik asko* jartzen zuen pankarta bat zabaldu zuten. Ekintza horrekin euren borrokan lagundu dieten guztien lana eskertu nahi izan zuten. Dena den, gauza bat nabarmendu beharra dago: eskerrak ELA sindikatua osatzen dugun lagun guztiek eman beharko genizkien eurei, duintasun erakustaldi aparta eskaini baitigute hilabete luzez.

Azkenik, Izarraitzen bildutako ordezkariek manifestazioa egin zuten Azpeitiko kaleetan zehar.

## PREPARANDO LA NEGOCIACIÓN COLECTIVA

**El acto celebrado en Azpeitia el 22 de enero sirvió para, entre otros aspectos, analizar la actual situación de la negociación colectiva y cómo afrontarla, partiendo siempre de los dos ejes principales que en esta materia tiene nuestro sindicato: salarios y empleo.**

**En la siguiente dirección de Internet encontraréis un video-resumen del acto;**
**http://youtu.be/P-4YA4HsgZY**



## Adolfo Muñoz, Txiki, secretario general de ELA

# "ADEGI PRENTENDE UNA SOCIEDAD SIN SINDICATOS"

## SARRERA

## "SOLDATEN ALDE EGINEZ ENPLEGUA BERMATU"

**Kaixo lagunok, ELAko militanteok.**

Azpeitian gaude; Euskal Herriko beste eskualde batzuk bezala, krisia eta langabezia Urola aldea ere gogor ari da jotzen. Enpleguaren aldeko borrokari babesa ematera etorri gara. Borroka sindikalaren balioa nabarmendu nahi dugu, inoiz baino premia handiagoa baita.

Urola-Kostan ere Adegiren kontsignak betetzen dira; hortxe dugu plazaratu duten *Lan Harremanen Eredu berria*. Baina hori ez da berria, aspaldiko kontua baizik. Historian atzera egin dute, garai bateko estilora: "Hemen nik agintzen dut"; "hemen ez da negoziatzen". Enpresetan ez dago demokraziarentzako lekurik; bakar-bakarrik administratu nahi dute dena, enplegua, lan-baldintzak eta gure bizitza ere. Joan den ostiralean aurkeztu zuten, zinismo eta hipokresia izugarriarekin.

Dena ematen dien legea badute, baina gehiago nahi dute. Beren boterea mugatzen duten hesi kolektibo guztiak bota nahi dituzte. Enpresarioaren eta langilearen arteko hartuemanaz hitz egiten dute bi aldeen indarrak berdinak balira bezala; baina indarrak ez daude inondik ere parekatuta. Adegik badaki borroka kolektiboak ekarri zituela emaitza sindikal eta sozialak, baita eskubide zibilak eta askatasun politikoak ere. Horregatik hartu nahi gaituzte banan-banan; negoziazio kolektiboa oztopoa da.

Adegik, Jaurlaritzako industria sailburuaren laguntzarekin, XIX. mendera itzuli nahi du; proposamen erreakzionario bat egin du. Joan den ostiraleko ekitaldiak erakusten du, beste behin, politika eta enpresa-mundua zenbateraino dauden lotuta.

"Ez dago negoziatzeko ezer", esaten die MCC taldeak Grumaleko langileei. Hauek prentsa bidez jakiten dute enpresa zertan ari den. "Ez dago negoziatzeko ezer", esaten du TSko zuzendaritzak. Corrugadosen gauza bera esaten dute: "Ez dago negoziatzeko ezer"; gainera, mehatxuka diote, Madrilen "jakingo duzue benetako epaile bat zer den". Adegi eredua Berra adinekoen egoitzan aplikatzen da: langileak kaleratu egin zituzten greba eskubidea erabiltzeagatik; halere, epaileak baliogabe utzi ditu kaleratzeak. Adegi eredua oso erraz azaltzen da: nahi dudana legeak eta epaile adiskideek ematen didate, eta gainera sindikatuak baztertu egiten ditut, neure botere absolutua mugatzen dutelako.

Garrantzi handiko zerbait ari dira esaten: lan-baldintzak lantoki bakoitzean erabakiko dira; lortzen dugun antolakuntza sindikalaren araberakoak izango dira. Aintzat hartu behar da krisiaz baliatuta egin duten guztia: legeak aterperik gabe utzi gaitu, kasu askotan babes judizialik gabe geratzen gara... Horregatik Adegik legeari heltzen dio. Bere legeari, alegia; badaki, gainera, eskatuz gero *marca España*-ko gobernuak gehiago emango diola. Hau da Jaurlaritzak babesten duen demokrazia enpresariala. Tapia anderea, patronal honek ez dauka gobernuaren babesik behar; berak badauka nahikoa indar. Adegiren alde jartzea eskubide laboralak areago zapaltzea da, horixe ari baita eskatzen Estatuko patronalik erreakzionarioena.

Sindikalismo hutsera garamatzate. Horixe da iritsi beharreko ondorioa. TS, Corrugados, Grumal, Perot, Marie Brizard... loteria beltza bizi izan dugu azken aldian. Zerbait ikasi dugu, halere: edozein egoeratan, sindikatuaren indarra handitzeko hobeto antolatu beharra daukagu.

Sindikalismoaren historian izan diren ereduak ikusirik, ELAk buru-belarri lantokiak sindikalizatzeko lanari ekingo dio. Eta hau elkarrekin egingo dugu, zuek eta guk.




### 1.- PARA LLEVAR ADELANTE SUS INTERESES... ¿QUÉ ES NOTICIA?

No son las decisiones de los gobiernos las que incrementan la desigualdad social. Eso no es noticia. No interesa ni a los gobiernos, ni al capital. Los medios públicos deberían dar prioridad a la pedagogía social. No lo hacen. Los privados, la gran mayoría tampoco; o son del capital o los mantienen en base a publicidad. La mayoría de las empresas de comunicación se dedican a extender los valores y la cultura que interesa al capital y a despreciar las alternativas y estigmatizar a quienes nos oponemos. Sencillamente es una vergüenza.

¿Y qué es noticia en esos medios? Lo que decide el Consejo Empresarial para la Competitividad, compuesto por Iberdrola, Telefónica, Banco de Santander, BBVA, CAIXABANK... Galán (Iberdrola) y Fainé (CAIXABANK) estuvieron hace muy poco en Euskal Herria para vender su mercancía: "Hay que bajar salarios; es bueno para la economía y el empleo". A Galán (Iberdrola), le preguntaron en una cadena de radio su opinión sobre los miles de hogares en los que no se pone la calefacción porque no tenían dinero (en un momento en que querían subir la tarifa un 11%). Pues bien, se le escapó una carcajada. ¿Sabéis que sucedió? El medio que la recogió, retiró la grabación enseguida.

Pues bien, el Sr. Galán vino a Bilbao (Fainé a Iruña) a dar una conferencia junto al Consejero Delegado de Tubacex para explicar que hay que bajar salarios y que la lucha sindical estorba. Ellos, con contratos blindados y fondos de pensiones millonarios, no solo marcan la agenda a la política para forzar la caída salarial y ofrecer más beneficios a sus accionistas; marcan también la agenda informativa. ¡Vaya despliegue de medios! "¡Lo ha dicho el Sr. Galán y el Sr Bidegain!" ¡Esa gente sí que sabe! ¿Y qué sucede? Hasta EITB despliega sus medios para extender la opinión ideológica de esos señores. Y poco después, sale la Consejera de Industria del Gobierno Vasco y hace suya esa posición ideológica. Despliegue mediático y apoyo político sin el más mínimo contraste.

¿Otro ejemplo de qué es noticia? El tratamiento dado este pasado viernes a la Jornada de Adegi para presentar su *Nuevo Modelo de Relaciones Laborales*. Al mismo tiempo, en los locales de ELA se daba una rueda de prensa para explicar en qué se concreta el modelo Adegi y, lo que es más importante, en que se le puede vencer. Me refiero a los 18 despidos de compañeras de Berra por participar en una huelga y que han sido declarados nulos por un tribunal. ¿Y qué es noticia? Largos minutos en el Teleberri para Adegi, y ni un solo segundo para Berra y ELA. A la concreción práctica del modelo Adegi, EiTB no le dedicó ni un segundo.

Decía el Ararteko en una entrevista reciente que muchas veces, ante lo que está pasando, "se ha mordido la lengua". Le parece un escándalo que se dilapide dinero público para banqueros irresponsables y se desprecie a quienes pasan hambre. El sindicato no puede morderse la lengua; los afiliados y afiliadas no pagan la cuota para que nos callemos. Si lo hiciéramos, renunciaríamos, como lo están haciendo los partidos, a defender posiciones alternativas. ELA no lo va a hacer.

### 2.- ¿QUÉ HAY QUE DESTACAR DE LA PATRONAL?

**a.- Representación otorgada para bloquear la negociación colectiva.** ¿Sabéis qué representación real tiene la patronal? No. No hay elecciones. Tienen una representación antidemocrática y actúan como un poder fáctico, al margen de las reglas democráticas.

¿Y de qué viven? Del dinero público que, entre otras, les hace llegar la Sr. Tapia y su Departamento. De chiringuitos montados para lograr financiación. Los gobiernos lo saben; en Andalucía y en Euskal Herria. Lo que el gobierno debería hacer, por eso de la eficiencia en el gasto público, al igual que en Andalucía, es controlar qué hace la patronal con el dinero que recibe.

**b.- Les sobra con la ley y la doctrina del Tribunal Supremo.** No necesitan negociar. En




los gobiernos están sus amigos. Los gobiernos trabajan para ellos. La política y el capital hacen los negocios juntos; las élites políticas y las económicas. A la patronal la corrupción política le trae sin cuidado.

Una cita entrecomillada de un artículo de opinión que publicaban en Madrid un abogado de CCOO y un catedrático de Derecho Laboral. Es un artículo muy interesante que lleva por título *La patronal no quiere negociar*. En él se atribuye a un dirigente de la CEOE una frase que dice lo siguiente: "Tenemos comprometidos los votos de los magistrados, ganamos por uno. La reforma laboral la validará el Constitucional, el fin de la ultraactividad, el Supremo. ¿Para qué necesitamos negociar?".

Así cualquiera, ¿verdad? La patronal tiene en nómina a quienes hacen las leyes y a quienes deciden, en el Tribunal Supremo y el Constitucional, sobre sus intereses. Ese resultado que anuncia la CEOE es el que se ha dado en Laminaciones Arregi. ¿Estado democrático, social y de derecho? Una gaita. ¿Quién no entiende todavía que con esta patronal que juega con cartas marcadas no hay nada que hacer? Lo mezquino de esta realidad es que el mismo sindicato que recoge esa frase (CCOO) diga una cosa de Miranda para abajo y otra muy distinta de Miranda para arriba, culpando a ELA del bloqueo de la negociación colectiva. Sí, es una actitud mezquina.

La patronal se vale ahora del PP (la Marca España) para imponer vía ley todos sus objetivos. Y, desde ese privilegio, se atreven a pedir y decir cosas inimaginables hace unos años. Ven a la política entregada y están desatados. ¿Qué más piden? No quieren pagar impuestos, otra reforma laboral... Se meten con los jueces que intentan incorporar algún equilibrio en la aplicación de las reformas. Demandan a la Diputación Foral de Gipuzkoa por *interferir* en la negociación del Convenio de Residencias... Unos caraduras. Los que hacen eso son los mismos que dictaban a las Haciendas Forales las *vacaciones fiscales*, que supusieron unos regalos de 700 millones de € para ellos y que, ya veremos próximamente, pueden conllevar una multa de 64 millones de € que vamos a pagar a escote nosotros. Ni más ni menos que tres veces las Ayudas de Emergencia Social. Lo dicho, unos caraduras.

**c.- Sacan el dedo a todo el mundo.** Hasta al Lehendakari, cuando propuso un Acuerdo Interprofesional. Confebask le mandó, con CCOO, LAB y UGT, a freír espárragos. ¡Para qué necesito un Acuerdo en el que tengo que ceder algo, si con la ley obtengo todo! Allí no estaba ELA, tenían mayoría absoluta y se demostró –una vez más– dónde está el problema: no hay ninguna posibilidad de llegar a un acuerdo mínimamente equilibrado en ese ámbito con la patronal.

**d.- ¿Qué más tiene la patronal?** Un ejército de personas desempleadas. El paro para ellos no es un problema; el paro es un arma que facilita el chantaje; para obligar a la gente necesitada a aceptar condiciones inmorales, injustas. Es lo que ha pasado en Koxka en Iruña y lo que está pasando en muchos sitios. Es la vida real, la del día a día; la que se produce en la Ley de la Selva en que las reformas han dejado las relaciones laborales.

**e.- Adegi:** Predilección por la gente débil y desprecio de la defensa colectiva. Adegi presentó el día 17 su propuesta de Nuevas Relaciones Laborales; a esa reunión acudió la Consejera de Industria del Gobierno Vasco a mostrar su apoyo a la patronal.

Su propuesta huele a naftalina; es muy vieja. Es una vuelta al pasado. Olfatean el miedo y saben que la gente débil, no organizada, es fácilmente manipulable. Pues bien, han decidido sacar provecho del miedo. Lo que debería ser un delito, sacar provecho de la gente atemorizada, es aplaudido por los gobiernos. Adegi plantea el uno a uno; Empresario-trabajador/a, como si en el uno a uno, uno y otro tuvieran la misma fuerza de negociación. Trabajador/a solo, individuo, aislado, sin nada colectivo que le refuerce.

Adegi , Confebask y CEN son patronales antisociales. El modelo de Adegi supone llevar las relaciones laborales al siglo XIX; a una sociedad sin sindicatos. Y usan como coartada el bloqueo de la negociación colectiva que ellos mismos provocan.

## 3.- PRÁCTICAS POSITIVAS EN LA NEGOCIACIÓN COLECTIVA

Todas tienen un común denominador: Una realidad sindical de ELA potente con un trabajo sindical muy importante.

**a.- Más de 300 empresas con convenio nuevo.** Introduciendo en muchas de ellas cláusulas anti-reforma.

**b.- Convenio del Textil de Bizkaia con Bizkaidendak.** ELA valora como positiva la decisión del gobierno de publicar este convenio. Ese convenio demuestra que son posibles otros contenidos en la negociación colectiva. ¿Por qué sí en el Textil y no en los demás? Porque Confebask y la CEN no quieren.

**c.- Las residencias de Gipuzkoa. Magistral en términos sindicales.** Hay que agradecer al Diputado de Bienestar Social su preocupación por las condiciones en las que trabajan muchas mujeres en un sector subcontratado. Es una excepción y lo sabemos valorar.

**d.- ELA se niega a dar apoyo a la caída salarial.** Ni es justa, ni es inevitable. Algunos están muy interesados en vender que firmando los sectores se evita la caída salarial. Si eso fuera así... ¿qué explica que, con la mayoría de los convenios firmados, en Nafarroa la caída salarial sea mayor?

**e.- También hay prácticas negativas. Koxka en Iruña.** Es inaceptable que en determinados sindicatos usen el miedo como arma para debilitar las posiciones sindicales. Ya lo hicieron antes para ayudar a la empresa a hacer listas negras en un ERE. Así no. Así no es posible sumar.

Igual que en el ámbito público. Es obvio que a los obsesos de la ortodoxia del déficit no les preocupa el empleo, ni el salario, ni el incremento de la desigualdad.

## 4.- EL SALARIO NO ES SOLO SALARIO

**a.- Datos que desmiente su posición ideológica.** La bajada de los salarios pretende incrementar los beneficios empresariales. Más allá de eso no hay ninguna razón que pruebe sus tesis; al contrario, en los países donde más se han atacado los salarios, donde mas recortes hay, más ha crecido el desempleo y la pobreza.

Datos de los costes salariales y de la productividad. Los primeros están muy por debajo de la media Europea y los segundos, un 28% por encima. La conclusión es muy sencilla, como reconoce el propio Consejo Empresarial para la Competitividad: En el Estado Español se obtienen más beneficios en detrimento del empleo y los salarios.

El capital y los gobiernos disfrazan el objetivo de acumular más capital y evitan hablar de las consecuencias: nuestro empobrecimiento. Son vasos comunicantes, su acumulación y nuestra pobreza.

**b.- El salario es mucho más que salario.** Supone también pensiones, vía cotizaciones. Han aprobado el *factor de sostenibilidad* para que bajen automáticamente a la vez que el empleo, los salarios y las cotizaciones. Los salarios, además, son impuestos y a través de ellos es sanidad pública, educación, prestaciones sociales...

**c.- El salario es empleo.** Digámoslo con determinación: una caída de los salarios conlleva más perdida de empleo. ¡Digamos no a la caída salarial!

## 5.- DEFENSA SINDICAL, LA SINDICALIZACIÓN ES LA ÚNICA SALIDA. (No hay más)

Nos llevan a 1976. Nos llevan a un sindicalismo *a pelo*, sin red protectora; sin derecho laboral, sin equilibrios, sin tribunales protectores... ¿Podemos hacer como que no lo vemos? Si hacemos eso lo vamos a pagar caro. El sindicato no puede mirar a otro lado.

Nada hay más político para un sindicato que la afiliación. Es garantía de autonomía respecto del poder político y económico y, qué duda cabe, es requisito de fuerza para impedir que el empresario imponga unilateralmente las condiciones de trabajo.

Cada vez hay más gente explotada, más gente maltratada... cada vez hay más gente que necesita el sindicato como instrumento de defensa.

Es un trabajo difícil. El debate de la sindicalización de los centros de trabajo es esencial para el futuro del sindicalismo. Hay que abrir ese debate, con honestidad y con proyección en cada centro de trabajo, en cada Sección Sindical: o defensa colectiva a través del sindicato, o aplicación unilateral de las condiciones de trabajo.

Todo un reto. ¿Lo hacemos nuestro? ¿Qué sindicato queremos? Un sindicato que luche. Eso es ELA, y eso solo lo da la afiliación.

Si alguien os dice que es posible de otra manera, os está engañando.



Negoziazio kolektiboa

## Lan Arloko Auzitegiak Donostiako Berra zahar-etxeko 18 kaleratzeak baliogabetu ditu

# BERRA, ADEGIREN BENETAKO AURPEGIA AGERIAN



*Irudian Berrako hainbat langile, euren aldeko epaiaren berri izan ostean albistea ospatzen*

Bizitzak sarri askotan paradoxa ederrak uzten dizkigu. Horietako bat iragan urtarrilaren 17an bizi izan zen. Adegik Donostian langile-klasearen aurkako bere estrategiaren aurkezpen publikoa egiten zuen bitartean, ELAk prentsaurrekoa eskaini zuen hiri berean. Adegiren benetako proiektua zein den erakusten duen agerraldia izan zen, gure jendeak bere larrutik sufritu behar izan duen benetako kasu batean oinarrituta: Donostiako Berra zahar-egoitzan gertatu dena, hain justu.

Izan ere, Donostiako Lan Auzitegiak Berra zahar-etxeko 18 langileren kaleratzeak baliogabetu ditu, eta egoitzaren kudeaketaz arduratzen den Sar Quavitae enpresa langileak berriro hartzera behartu du. Ez da azkenaldi honetan Gipuzkoako zaharren egoitzen sektorean Adegiren kolpekari den enpresa honek bere kontran jasotzen duen lehen epaia: azaroaren 18an sozialeko beste epaitegi batek greba eskubidea eta askatasun sindikala urratzeagatik indemnizazio potoloak ordaintzera kondenatu zuen.

Ezin zitekeen bestela izan; goiko argazkian ikusi daitekeen bezala pozarren agertu ziren Berrako langileak. Baina, egun horretan zoriontasuna nagusi zen arren, azken hilabeteetan bizi izandako une gogorrak azpimarratu nahi izan zituen ELAk sektorean duen arduradun Iñigo Zubeldiak.

"Lehen pertsonan bizi izan ez baduzu, oso zaila da azaltzea azken hilabete hauetan sufritu dugun guztia: xantaiak, mehatxuak, langileen artean beldurra zabaltzea... Berran gertatutakoa Adegirengan sortutako etsipenaren erakusgarri izan da. Azken finean, ezin zuten onartu sektoreko enpresetan lan erreformari aurre egingo dieten enpresa-hitzarmenak sinatzen ikustea, eurek ezarritako estrategi eta ildoei muzin egiten zieten akordioak".

Zubeldiak argi utzi nahi izan zuen, beste behin, azken hilabete luze hauetan saiakera ugari egin direla gatazkari amaiera emango dion akordioa lortzeko, baina, zoritxarrez, gaurdaino ezinezkoa izan dela. "Gogorarazi beharra dago gaur egun akordioak adostuta ditugula Gipuzkoako zahar egoitzen %96ean. Horregatik, gatazka konpontzeko sententziak betetzeak ez dira nahikoa. Behar adina aldiz azpimarratuko dugu lan-baldintzak duinduko dituen hitzarmena lortzearen beharra. Horregatik, langileak lanean hastearekin bat, berriz ere greban jarraituko dugu. Gipuzkoako ia erresidentzia guztietan egin dugun bezala gure baldintzak hobetuko dituen hitzarmena sinatuko dugu, kosta ahala kosta".

## BREVE CRONOLOGÍA

**2013. 13 de mayo.** ELA convoca huelga indefinida en el sector de las Residencias de la 3ª edad de Gipuzkoa para conseguir un convenio que dignifique sus condiciones laborales. Las trabajadoras ahora readmitidas participan en la huelga de manera muy activa.

**2013. 19 de julio.** Adegi y Sar Quavitae, empresa que gestiona la Residencia Berra, intensifican sus chantajes y amenazas contra estas trabajadoras, con un doble objetivo: impedir que ejerzan su derecho a la huelga y ejemplarizar al resto de trabajadoras, tanto en la propia residencia como en el sector.

**2013. 27 de septiembre.** Sar Quavitae despide a 18 trabajadoras por ejercer su derecho a la huelga.

**2013. 7 de octubre.** Se celebra el juicio por la demanda interpuesta por ELA por la vulneración de un derecho fundamental como es el de huelga.

**2013. 20 de noviembre.** El Juzgado de lo Social de Donostia condena a Sar Quavitae por vulnerar el derecho a la huelga y la libertad sindical, y obliga a indemnizar a las trabajadoras afectadas y a ELA.

**2014. 13 de enero.** Se celebra el juicio por la demanda interpuesta por ELA por el despido de 18 trabajadoras.

**2014. 16 de enero.** El Juzgado de lo Social declara nulos los 18 despidos y obliga a la empresa a la inmediata readmisión de esas trabajadoras.

Labur Breves

### • En 2013 se perdieron 18.400 empleos en Hego Euskal Herria

El 23 de enero se conocieron los datos de la Encuesta de Población Activa correspondientes a 2013. La EPA recoge que la población desempleada descendió en 7.600 personas. Este descenso no se debe a que se haya creado empleo, sino al incremento del desánimo de la gente por buscar un empleo, como lo demuestra el dato de que la población activa descendiera en 26.000 personas. Por lo tanto, esto supone que en 2013 se destruyeron 18.400 puestos de trabajo, lo que implica una pérdida del empleo del 1,7%. A pesar del descenso de las personas paradas, la tasa de desempleo sigue siendo del 16,1% en Hego Euskal Herria, 5,2 puntos mayor que la media de la UE-28 (10,9%), y tan sólo superada por Chipre (17,3%), Croacia (18,6%), el Estado español (26,7%) y Grecia (27,4%).

### • Huelga indefinida en Unipapel

La plantilla de Unipapel –empresa papelera situada en Aduna, Gipuzkoa– comenzó el 20 de enero una huelga indefinida. El objetivo de esta convocatoria es evitar los planes de la compañía, que pretende trasladar parte de la producción a su planta de Logroño. Esta decisión podría afectar gravemente a gran parte de los 78 trabajadores y trabajadoras que actualmente trabajan en la planta de Unipapel en Aduna.

### • Huelga en el sector de limpieza de edificios y locales de Gipuzkoa

ELA, LAB, ESK y UGT han convocado dos jornadas de paro para los días 29 y 30 de enero en el sector de limpieza de locales y edificios de Gipuzkoa, en defensa del convenio colectivo. ELA denuncia que la patronal pretende utilizar la reforma laboral para seguir precarizando este sector. Estos trabajadores y trabajadoras llevan sin convenio desde 2009, debido a que la patronal se ha negado durante todo este tiempo a firmar ningún acuerdo que mejore las condiciones laborales.

**www.ela-sindikatua.org / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

**Franqueo concertado nº 08/207**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

**www.ela-sindikatua.org**